


[b]
BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
638. zkia.
XV. urtea
2007ko abenduaren 21a

# 15 urte pasatu dira, barren!

[ URTEKARIA ] 15 URTEETAKO ERREPASOA • [ DATUTAN ] BARREN ZENBAKITAN

# MERKATU PLAZA

*Uste duzuna baino gehiago!*



**Amaia** FRUTADENDA



**Arantxa eta Marian**
FRUTADENDA



**TXILARRE** BARAZKIAK
Elikagai biologikoak



**IBARRE** OKINDEGIA




**Zabala**
URDAITEGIA eta ARDANDEGIA



**MARI** HARATEGIA



**Zabala** FRUTADENDA



**M. Angeles**
FRUTADENDA



**TXIRIBOGA** TABERNA



**PAGOA** LORADENDA

*Gabon zoriontsuak denoi!*

MILENIUM XARMANT

XARMANTen edozein aseguru mota kontratatzeko beharrezkoa duzun laguntza eta informazioa emateko lan egiten dugu, ahal den arinen eta eraginkortasun handienarekin.

ZURE ESKURA GAUDE!

Trenbide kalea, 21 behea • Tel.: 943 74 80 92 • Faxa: 943 74 82 42

**Gabon zoriontsuak pasa**
**eta**
**urte berri on !!!**

elgoibar

www.residencialgeminis.com

48 etxebitza, 2 eta 3 gelakoak

117 garaje eta 76 trasteleku




Grupo GSI Residencial Géminis

Tfno.: 943 74 80 92

infolur agentes inmobiliarios

Grupo GSI Espacios de bienestar

Argibideak: INFOLUR - Trenbide kalea, 21 behea - 20870 ELGOIBAR - info@infolur.net - www.infolur.net


NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA
ZELETA
BARAZKIAK
– 5.000 m² babestutako barazkigintza produkziorako
– 200 m² manipulazio eta ontziratze biltegietarako
EUSKAL BASERRI
Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu
●Landareen PRODUKZIOA
●Laborantza KONTROLA
●Eskuz eginiko AUKERAKETA
●BANAKETA
●Bertako produktuetan erantzunik GERTUKOENA
ZELETA
ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserria.com


Salento
Jatetxe italiarra
Pedro Miguel Urruzuno kalea, 10
Tel.: 943 74 01 96
ELGOIBAR


Belaustegi
Baserria
JATETXEA
Zoriontasuna, bakea
eta maitasuna
ez daitezela falta
San Migel Gaina z/g • Tel. 943 74 31 02
www.belaustegi.com
1 eguerdian zabalik
5 eta 6 zabalik


BASURCO
Inmobiliaria API-368
ZURICH
ASEGURUAK
Deba kalea, 2 behea
Tel.: 943 748 013 · Faxa: 943 748 135
Gabon jai zoriontsuak eta urte berri on

Euskararentzat bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz argituko da
noizbait bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu Herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak dakarkiola
geureari osasuna






Zorionak eta urte berri on!

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa Enparantza, 2 – 943742731
20870 ELGOIBAR • elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

ELGOIBARKO UDAL KIROL PATRONATUKO

Bazkide egin zaitez!!

ELGOIBARKO UDAL KIROL PATRONATUA












2008

Tef.: 943 74 44 15

OLAIZAGA IGERILEKUKO ORDUTEGI BERRIA:
Astelehenetatik ostiralera 7:00 - 21:30



# ZOZOAK BELEARI...



**IMANOL LARRAÑAGA**

Hauxe izango da azkena, Uxue. Kantak zioen moduan, *bukatu da, se akabo!* Hiru urte elkarrekin kontu-kontari jardun eta gero, umeak Olentzerori kantuan hasi direnean isilduko gara gu. Zenbat lo dira hiru urte?! Eta zenbat amets?!

Akordatzen al zara hasi ginenean Suedian zeundela? Hotz sumatu zintudan orduko hartan, Suediako gizarte bakartiarekin ikaratuta bezala. Akaso, horregatik bueltatu zinen aulki bat elurretan ahaztuta. Gero, berotan sartu ginenean, arropak kendu eta maitasunaz, maiteminaz edo biluztasunaz jardun genuen; ia-ia g-puntua ere topatu genuen Illunben. Elkarri begietara begiratuta berba egin genuen zahardadeaz, heriotzaz edo zoriontasunaz. Etorkinenei, euskarari, gazteei edo gizontasunari hautsa kentzeko ere aprobetxatu dugu. 2006ko San Juanetan, berriz, sua piztu genuen su-etena ospatzeko, baina, zoritxarrez, nahi baino lehenago itzali zitzaizkigun sua eta itxaropena. Lastima.

Gustura jardun dut, baina ipuinik politenak ere hasi eta amaitu egiten dira, zorionez. Askarik handiena ere bete egiten da iturriaren emana eteten ez bada. Horrelakoetan, gainera, gainezka egin aurretik, hobe izaten da aska hustu eta ur berriari lekua egitea.

Urarekin ala txanpanarekin agurtu behar duzu urte zaharra, Uxu? Piztu behar al dituzu Gabonetako bonbillak urte berriari begiratzeko?

**«Ipuinik politenak ere hasi eta amaitu egiten dira»**

**IMANOL**

**«Ez gaude amaieretara ohituak»**

**UXUE**

**UXUE ALBERDI**

Denak behar luke iraungitze-data. Denak behar luke yogur. Edozein proiektuk, edozein ilusiok: dela harreman bat, dela borroka bat, aldarrikapen bat, kultur emanaldi bat, begirada bat, muxu bat. Bestela zentzua galtzen du hasierako asmoak. Bai. Nago, ez gaudela amaieretara ohituak. Ez dakigu agur esaten, ez dakigu despeditzen. Lagun baten etxera afaltzera joan eta kapazak gara atarian ordu erdian egoteko "beno, joan beharko dugu..."; "bagindoazen..."; "bada erretiratzeko garaia..." eta halakoak bata bestearen atzetik josten.

Inportantea da gauzak amaitzen ikastea. Testu bati azken puntua jartzen ez dakienak nekez idatziko du eleberri bat. Jarioak, energiak, indarrak egitura behar du, eta egiturak amaiera. Sortuko dira berriak, baina leku egin behar zaie.

Polita izan da.

Hiru urtetan 3 bizileku, 3 mutil-lagun (gutxi gorabehera, nork daki gauza horiek zehazten), kontratudun 3 lanbide (kontratu gabeak... ejem), 3 bidaia handi... Bidegurutzez josi dut nire bizitza. Eta ez dakit zein bide hartu nahi dudan: lehen aldiz zalantzaren gozamena ezagutu dut.

Agur, Txino. Gurea bukatu da. Ondo bizi.

Etxeko giltzak sukaldeko mahai gainean utzi dizkizut. Banoa. Banoa.

---

“ ONDO AMAITU ETA ONDO KONTATU ”

Esaera zaharra

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Esker ona

2007 urtea amaierara iristen ari da, eta urtearekin batera, baita Euskal Jaien mendeurrena gogorarazteko antolatutako egitaraua ere.

Aurten, ehun urte bete dira gure herrian Euskal Jaiak ospatu zirenetik. 1907 urtean, uztailaren 26tik 30era bitartean, hainbat ekitaldi egin ziren, euskal hizkuntza eta kultura bultzatzeko asmotan.

Euskal Jaien mendeurrena gogorarazteko antolatutako egitarau oparoa ikusirik, eskerrak eman nahi dizkiegu herriko elkarte eta norbanako batzuei, egin duten borondatezko lan eskuzabalagatik. Euren laguntzagatik izan ez balitz, ez litzateke-eta posible izango mendeurren hau ospatzea.

Bestalde, txalotzekoa da mendeurreneko ekintzak antolatzeko berariaz sortu den Batzordeak egin duen lana. Hor izan dira eskolak, euskaltegiak, elkarteak, norbanakoak... beti laguntzeko prest. Beraiek eskaini diguten lankidetza ezinbestekoa izan da, horrelako egitarau aberatsa eta aparta antolatu ahal izateko.

Horrez gain, gogoan izan nahi ditugu hainbat ekintzatan, esaterako, argazki zaharren erakusketan, Donostiako Orfeoiak eskaini zuen kontzertuaren antolaketan, irudiak grabatzen eta beste hainbatetan lagundu diguten herritar guztiak.

Eta azkenik, ez dugu eskutitz hau bukatu nahi, Elgoibarko herri osoari, Euskal Jaien mendeurrena gogorarazteko antolatu dugun egitarauari egin dion harrera onarengatik, eskerrak eman gabe.

Bihoa, beraz, horientzat guztientzat gure esker onik zintzoena. Bukatzeko, aukera honez baliatzen gara denoi Gabon zoriontsuak eta urte berri on opatzeko.

**Udaleko Euskara eta Kultura Sailak**

## Arnaldo askatu

"Arnaldo askatu" izenarekin osatutako herri ekimena Arnaldoren eta bere sendiaren lagunok osatzen dogu, baitta bere gaur egungo egoeriarekin, hau da, espetxeratuta egotiarekin bat egitten ez dogun herrittar batzuk ere. Gure artian pentsakera eta ideologia politiko desberdiñak dittugun pertsonak gaude. Gauza batzuetan ez gera ados jartzen, baiña ondo dakigu arazua konpontzeko modurik onena elkarrizketia dala. Herri ekimen hau martxan jartziaren arrazoi nagusixak ondorenguak dira: alde batetik, Arnaldo eta bere familixiari gure babesa, alkartasuna eta laguntzia ematia: hitz batian, elgoibartar guztiok bere sendi eta lagun bihurtzia. Bestetik, guztiz legezkua, bere kartzelaratzia salatzia (eta baitta bere alderdikidiak eta egun hauetan atxilotu dittuenak ere).

Egun, bake prozesuak porrot egin eta gero, Estatuko agintarixak ehizian hasi dira. Ondorioz, gure herrikide eta lagun dan Arnaldo espetxian dago denboralian. Zoritxarrez, gauziak ez dauka, oraingoz, konpontzeko itxurarik. Euskal Herrixak bizi daban giro politiko nahasi honetan jende asko ari da sufritzen: batzuk, kartzeletan edo erbestian; beste batzuk, mehatxupian. Bittartian, herritar gehixenak kanpotik begiratzen debe, tristuraz eta ezintasunez, eskenatoki politikuan gertatzen ari dana.

Arnaldok urte hauetan Euskal Herriko, Estatuko eta Europako agintari politiko, alderdi, sindikatu, erakunde, enpresaburu, intelektual eta abarrekin berba egin eta akordiuak lortzeko erabili daban baliabide bakarra hitza izan da. Horregatik, lagun eta herritar bezela uste dogu Arnaldoren askatasuna bihar-biharrezkua dala, erakutsi dabalako elkarrizketia eta negoziaziua bultzatzeko ezinbestekua dala. Beraz, ez dogu uste iñungo arrazoi ez logiko ezta etikorik daguanik astakeria honekin jarraitzeko. Argi eta ozen esaten dogu hainbeste desiatzen dogun bakia lortzeko biharrezkua dala Arnaldo; aske bihar dogu, lanian, etxian, bere familixa eta lagunen artian, dakixana egitteko: politikia. Ez dogu amaitu nahi Juan Mari Mendizabali eta bere familixari besarkada haundi bat eman gabe. Herri ekimen honen izenian antolatzen diran ekitaldixetara etortzera eta parte hartzera animatzen zaittuegu. Aldez aurretik eskerrak emanez eta elkar ikusiko dogulakuan.

**Arnaldo Askatu ekimena**

## Juan Mari Mendizabal

Azaroaren 30an guardia zibilak Juan Mari Mendizabal atxilotu zuen. Juan Mari 18/98 makrosumarioko partaidea da eta sententzia argitaratu aurretik atxilotua izan da, beste kideen antzera. Euskalgintzan murgildurik eta euskararen aldeko lanean pasatu du Juan Marik bizitzako parterik luzeena. AEKn klaseak ematen Elgoibarren eta Eibarren, ondoren ardura nazionalak bertan hartu zituen; Euskal Herrian Euskaraz taldea bultzatzen; EITBko kontrol batzordean ordezkari lana betetzen Euskal Herritarrok taldearen izenean, "Ari gera" egitasmoa bultzatzen Elgoibarko Izarraren barruan... Komunikabidea izanik eta euskararen normalkuntzaren alde lanean diharduen BARREN aldizkarian letra txikian eta bazter batean aurkitu dugu albistea, abenduaren 13ko lanuztearekin nahasturik. Nire desadostasuna adierazi nahi dut emandako tratamenduarekin.

**Pello Mendizabal**

[b]

barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:
ELGOIBARKO IZARRA

ZUZENDARIA: Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Asier Orbea, Oier Narbaiza, Andoni Iturbe PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Jon Eugi, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Ibai Portu, Oihana Tarragual, Unai Villena INPRIMATEGIA Gertu TIRADA 4.650 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## TXALOAK

• Txalo bero bat Udalari patinatzeko pista jarri duelako: "Oso ondo pasatu genuen zapatuan. Ez da izotz pista, baina berdin-berdin funtzionatzen du, ez da igartzen ez dela izotza eta gainera ez du hainbeste hotz egiten".






• Txalo bero bat Abiadura Handiko Trenaren kontrako kontzentrazioan parte hartu zutenei: "Denon artean gelditu behar dugu Abiadura Handiko Trena, denon inplikazioa beharrezkoa da. Joan zen zapatuan AHTren aurkako kontzentrazioan parte hartu zuten herritarrak txalotu nahi ditut".

## KEXAK

• Ipuin kontalaria egoten denean, ez digute lagatzen Liburutegiko ikasketa gela erabiltzen: "Udal Liburutegian ipuin kontalaria egon arren, barruko ikasketa gela libre egoten da, baina arduradunek ez digute lagatzen bertara sartzen. Gu isil-isilik egoten gara ikasten eta ez diogu inori trabarik egiten. Eskertuko genuke barruko gela erabiltzen lagatzea, jakinda badatozela."

• Mintxetako muskulazio gelako ordutegia oso laburra da: "Arratsaldez egiten dut lan normalean eta goizak aprobetxatzen ditut kirola egiteko. Eguraldi ona egiten duenean kanpoan ibiltzen naiz, baina neguan Mintxetako muskulazio gelara joatea dut gustuko eta ordutegia oso laburra da. Astelehen, asteazken eta ostiraletan bakarrik irekitzen dute goizez, 10:00etatik 12:30era eta gainera ez da monitorerik egoten. Ahalegina egin beharko litzateke zerbitzu hori luzatzeko".

• Iñiguez de Karkizano kalean ez dute Gabonetako argirik ipini: "Udalari nire kexa azaldu nahi diot, izan ere, gainontzeko herritar guztiek bezalaxe ordaintzen ditut zergak, baina gure kalean ez dute Gabonetako argirik ipini. Eta ez da lehenengo aldia, urtero gauza bera gertatzen da. Urtetik urtera argi gehiago jartzen dituzte, baina gure kalea beti ahazten zaie. Ea datorren urtean kontuan hartzen gaituzten. Senideak etortzen zaizkigu bisitan eta kalean Gabonetako argirik ez egotea tristea da".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12

Elgoibarko Udala
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DANOBAT
kutxa
GOITI
GRUPO DANOBAT

ERREPASOA AZALETIK

# ZURI-BELTZETIK KOLOREZKO DISEINU BERRITZAILERA

*Azken hamabost urteotan diseinua garai berrietara egokitzen joan da. Zuri-beltza atzean laga eta astekariak kolorearen aldeko apustua egin zuen, ilusioa bidean galdu gabe. Azalaren itxuraldaketaz gain, herriaren bilakaera ere nabarmentzen da. Biak elkarrekin joan dira. Azalik aipagarrienetako batzuk aukeratu ditugu, gainontzekoak ahaztu gabe.*

Idatzizko hedabideak 0 aletik hasten du bidea, ezerezetik aterako balitz bezala. BARREN astekaria ere hutsetik hasi zen bere diseinu berria topatzen. Garai hartan tokiko komunikabideak lehen urratsak ematen ari ziren, eta helburu nagusiena errealitate berri bati forma ematea zen, herritarren informazio goseari alegia.

Hastapeneko diseinuetan astekariak ez zuen logo propiorik eta elgoiBARREN zuen izena. Lehenengo aleak 44 orrialde zituen, zuri-beltzean. Hitza irudiaren gainetik zegoen, herrikideen testigantzak bildu nahian. Hori zen garaiko herri aldizkarien joera, baina azkenean, diseinu munduan irudiak testuari lekua kentzen bukatzen du. Hala ere, oreka bilatu behar da bi osagaien artean, baina azalean irudia da beti jaun eta jabe. BARREN ere bide horretatik joan da, denboraren poderioz diseinu ausartago eta arinagoa




*0 alea (1993-01-15)*
*Olentzerok ekarri zuen ELGOIBARREN*

eginez. Lehen aldaketa nagusia 53. alearekin batera etorri zen. Kolorea heldu zen azalera eta testuak arindu ziren. Grafikoak, zatidurak eta fitxa teknikoak nabarmendu ziren barrualdeko testuetan, informazioa eskuragarriago eta argiago egon zedin. Argazkiak handitu egin ziren; protagonistak ageriago zeuden. Atal berriak eta gehigarri bereziak jarri ziren martxan. Lehenengo urratsak izan ziren.

175. alean Ainhoa Lodoso BARRENeko zuzendariak aitortu zuen “trajea” txiki geratu zela eta, jostunak berri bat egin ziola BARREN aldizkariari. Harrezkeroz, jostunari ez zaio lanik falta izan egindako lanari eusten eta etorkizunekoan pentsatzen. Atal berriak jaio ziren eta azalak gero eta dotoreagoak ziren, albisteari edo protagonistari lotuta. BARREN aldizkaria gauzatu zen, ELGOIBARREN, atzean lagata.

Izena ere goikaldean agertzen zen eta ez saihetsean. Jasone Osoro izan zen ale hartako protagonista. Hurrengo aldaketa nagusia 513. alean etorri zen, BARRENen 12. eta Elgoibarko Izarraren 40. urtemuga aitzakiatzat hartuta. BARREN ausartagoa egitea zen asmoa, eta egun irauten duen logoa jaio zen azalean.

Azken urteotako azalak aukeratzea ez da lan erraza izan. Baina guztietan herritarrak edo herriko gairen bat izan da protagonista. Urteak pasa ahala, argazkietan ere nabaritu da berauen presentzia: erretratu handiagoak eta lehen planoak, azalean bete-betean euren irudia agertzen den bitartean. Ehunka protagonista pasatu dira. Aukeratu ditugun hamabost azal horiek, dena den, badute zerbait bereizgarria: protagonistaren azalean sartu izana, eta herritar askoren memorian gordetzeko tentaldia.




*53 alea (1994-02-25)*
*Lehen aldaketa diseinuan*




*106. alea (1995-05-05)*
*Joseba Etxebarria*




*166. alea (1996-10-04)*
*Kilometroak Elgoibarren*




*175. alea (1996-12-05)*
*Diseinu aldaketa*




*177. alea (1996-12-20)*
*Elgoibarren 650. urteurrena*




*286. alea (1999-07-09)*
*Xabier Elizburu, apaiza*




*302. alea (1999-12-17)*
*Arnaldo Otegi*




*363. alea (2001-05-18)*
*Gaztetxea, gogoan*




*366. alea (2001-06-08)*
*Elgoibarko toreroak*




*429. alea (2003-12-10)*
*Mugerza krosa*




*500. alea (1995-11-10)*
*500. alea*




*513. alea (1905-01-14)*
*Diseinu aldaketa*




*572. alea (2006-05-19)*
*Iban Zubiaurre*




*635. alea (2007-11-23)*
*Katxo Bandan 50 urtez*

Sasoi honetan biztanle bakoitzak 150 euro gastatzen ditu bataz beste jokoan EAEn.

# Gabonetako Loteria erosteko ohiturarik baduzu?

**CAMILA ROVIRA**
Etxeko andrea
52 urte



“Hiru edo lau dezimo erosten ditut, eta Ciudad Real eta Galiziako familiaren artean banatzen ditugu. Primitiban 2.400 euro irabazitakoak gara. Zortea izan genuen.”

**CESAR TAMAYO**
Elektrizista
53 urte



“Beti zenbaki bera hartzen dugu: 23.345. Nahiz eta sekula irabazi ez, ez dugu zenbakiz aldatuko. Gabonetan loteria gehiago gastatzeko joera dut.”

**JUAN MARI EGUREN**
Delineantea
56 urte



“Azken 30 urteotan zenbaki honekin jokatu dugu: 20.503. Gabonetako Loterian 200 bat euro edo gastatzen dut, baina ez zaigu sekula ezer tokatu.”

**MARIA INES ARRIOLA**
Etxeko andrea
76 urte



“Gabonetan loteria gehiago erosten dugu. Familiaren artean banatzen dugu, baina ez zaigu sekula ezer tokatu. Jokatutakoa irabazten badugu, eskerrak.”



## ESKERTZA

2007ko abenduaren 13an hil zen
***Josefa Arriola Artetxe***ren sendiak
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





BARREN aldizkariaren lehen alea banatzen jardun zuen koadrila honek, 1993ko abenduaren 24an.

Hasi ginenetik, hazi egin gara. Izan ere, gero eta etxe gehiagotan sartzen da BARREN aldizkaria. Gaur egun, 4.650 aleko tirada dauka Elgoibarko herri aldizkariak.

Orain dela hamabost urte jaio zenean, 3.000 buzoitan sartzen zen. Apurka-apurka, aldizkariaren harpidetza eskatu dutenen kopuruak gora egin duenez, tirada ere handitu egin behar izan dugu. Hasiera-hasieran harpidetza eskaera oso handia izan zen eta ale gehiago inprimatzeari ekin genion. Ondorengo urteetako igoera graduala izan bada ere, azken boladako tiradak izandako gorakada nabarmentzekoa da: azken hiru urteotan 350 ale gehiago banatzen ditugu.

Aldizkari gehien-gehienak, zelan ez, Elgoibarko herriko 3.520 etxetako buzoietan sartzen dituzte gure banatzaileek. Dena dela, postaz ere beste 68 ale bidaltzen dizkiegu herriko enpresei eta. Jakin badakigu baserri auzoetako biztanleak BARRENen irakurle finak direla, ia-ia baserri guztietara heltzen da-eta, 206tara hain zuzen. Altzolan 53 harpidedun dauzkagu eta Mendaron 406. Herritik kanpora bizitzera joandako hainbat elgoibartarrek eta mendaroarrek ere postaz jasotzen dute. 376 ale bidaltzen ditugu inguruko herrietara eta Espainiako Estatuko hainbat lekutara. Horrez gain, 24 beste Estatu batzuetara bidaltzen ditugu postaz. Urruti bizi direnek ere herriko gorabeheren berri izateko nahi dute BARRENen harpidetza.

## Harpidetza






# Kolaboratzaileak

## Jesus Mari Makazaga



Barixaku eguerdixan etxian naizenetan, banatzailliak tinbria jo orduko jaisten naiz buzoira, aldizkarixaren billa. Lehenengo, “nere” orrialdia nola gelditu dan ikusi, *Akordatzen naiz* eta *Gure berbak* bialdu bezela argitaratu diran, eta ia presentable xamar daguan aste honetakua. Gero, hasieratik hasi: zozuak zer dion beliari (edo, gaur egungo gaztien kezkak eta arrangurak zein diran), eta zer gutun klase datorren iritzixetan (edo herrixak zer kezka eta arazo dittuan). Gainbegiratu bat erreportajeari eta elkarrizketeri (osua, geruagorako), eta agendiari: ekitaldixetara eta zineklubera juateko aste honetan ere gaizki ibiliko naiz seguruenera, baiña zer emango deben behintzat beti dakitt (ez dakitt tristiagua ez ote dan!).

Herrixaren berri jakitzeko aukera paregabia da neretzat BARREN. Gure ondo-onduan bizi diranak nola pentsatzen eta sentitzen deben ezagutzeko aukera paregabia. Baitta kulturan eta herrigintzan aurrera egitten laguntzeko tresna bat ere: jendia euskeraz irakurtzen trebatzeko aukera bat, kultura zabaltzeko modu bat, herrixan gaizki dabizen gauzak konpontzen laguntzeko bitarteko bat, eta abar eta abar.

Horretarako, oiñarrizkuak izango dira informazio-askatasuna eta (ahuntzak beti mendira egitten dau, eta nik nerera) hizkuntza-eredu egoki eta gertuko bat (adiñeko jendiak ondo entenditzeko modukua eta gazte-jendia bide onetik eruateko modukua). Hanka bi horrek osasuntsu eukitta, maratoi bat ere egin leike BARRENek: orain 15 bezela, baitta 42 urte eta 195 egun gitxienez ere.

Zorionak zure urtebetetzian, zorionak ta urte askotarako...

## Juanito Gorostiza



**• Noiztik BARRENeko kolaboratzaile?**
Duela hamahiru urte inguru hasi nintzen. “Gogoratuz” atala egiten nuen. Hildako jende ezagunaren biografia txiki bat zen. Ainhoa Lodoso eta Jasone Osoro zeuden orduan hemen eta haiek eskatu zidaten laguntza. Gerora erretratu zaharrak ekartzen hasi nintzen eta hemen nabil oraindik.

**• Zaila da erretratu zaharrak lortzea?**
Izango ez da ba! Lantegian zortzi ordu lan egitea baino lan zailagoa da hau. Beti jendearen atzetik nabil. Batek badaukala erretraturen bat, besteak ez duela bilatu eta beste egun baten joateko... baina hemen astero behar da erretratua! Hori bai, zerbait gaizki ipintzen badugu berehala etortzen dira denak. Oker egindakoak zuzendu eta kitto!

**• Zer da BARREN astekaritik gehien gustatzen zaizuna?**
Niri orokorrean, dena gustatzen zait. Herriko berri edukitzeko modurik onena da. Dena dator bertan: farmaziak, autobus eta trenen ordutegiak, notiziak... nire inguruko jendeari erretratu zaharraren atala izugarri gustatzen zaio, asko atzetik hasten dira aldizkaria irakurtzen. BARREN konpletoa da.

**• Ilusioz hartzen duzu astekaria etxean?**
Bai horixe! Eta ez nik bakarrik, eh? Jendeak aldizkaria jasotzen ez duenean niri esaten didate, ni izango banintz moduan BARRENeko arduraduna! Aurten kejatu den bakoitzak afari bat ordainduko baligu, urte osoko afariak egindad!

**• Noiz arte segituko duzu kolaboratzaile lanetan?**
Ahal dudan bitartean segitzeko asmoa daukat. Nik egiten ez badut beste norbaitek egin beharko du eta ez da lan erraza. Ni bertako sentitzen naiz BARRENen.


**www.elgoiBARREN.net**




**Egin klik eta BARRENen 15. urteurrena ikusiko dozu!**

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA


Mantentzea doan
3 urtean
Chevrolet
sorta osoan.
Abendu arte
bakarrik!
Pasa mezua.!
Chevrolet bat nahi baduzu, orain errazagoa da GIAUTOri esker.
Pasa mezua!
CHEVROLET
Promozio honen balioa, 07-12-31 baino lehenago matrikulatutako Chevrolet automobil guztientzako da.
Giauto
EIBAR
Otaola, 27
Tlf: 943 202 500
clientes@giauto.es
OLABERRIA
Karobi Ind. z/g
Tlf: 943 885 150
www.giauto.es


ETXEBIZITZAK ERAIKITZEN
SANTA KLARA 13 zkia.(Elgoibar)
• Duplex-a terrazarekin
• 2 eta 3 logelako etxebizitzak
• Garaje eta trastelekuak
INFORMAZIOA eta SALMENTA: Pedro Muguruza Etorbidea, 9 - Behea (Elgoibar). Tlf.: 615 758 480


Masajeak
ERLAXATZAILEA
AROMATERAPIAREKIN
Gorputz-tratamenduak
TXOKOLATERAPIA
ARDOTERAPIA
Bildukiak (termoterapiarekin)
ALGEN BILDUKI ERLAXATZAILEA
OPARITU OSASUNA,
LASAITASUNA eta
ONGIZATEA!!!
ATSEDEN
KIROMASAJEA


Upaiz Zaharra, 6
Elgoibar
on@oninformatika.com
943 74 18 46
On
informatika
Salmenta
Konponketa
Zerbitzu Teknikoa
Aholkularitza
Web Diseinua
Sareak
...
Sartu gure web orrian, edota etor zaitez gu ezagutzera!!
www.oninformatika.com


Erakusketa
"EUSKAL JANTZI TRADIZIONALAK"
Abenduaren 19tik urtarrilaren 3ra, Kultur Etxeko erakusketa gelan
Ordutegia:
Astelehenetik larunbatera: 19:00etatik 21:00etara
Igandeetan: 12:00etatik 14:00etara
Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean: itxita
Abenduaren 29an: 12:00etatik 14:00etara

EAJ
PNV

Elgoibarko EAJ-PNVk
jai zoriontsuak opa dizkizue
elgoibartar guztioi.



# BERTSO SAIOA

ABENDUAK 27 EGUENA

22:30

HERRIKO ANTZOKIA

## ELGOIBAR

Amets Arzallus
Uxue Alberdi
Maialen Lujanbio
Xabier Paya
Aitor Sarriegi

**Aurkezlea:**

Irati Agirreazaldegi

Elgoibarko Udala

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

Foru Aldundia



Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe!
K21
BIOK
DEKORAZIOA
Fatxadaren erreabilitazioa
Apaintzeko pintura
Paperak eta muralak
Parket flotatzailea
Pintura orokorrean
GEHIENEKO BERMEA
AKABERA ETA GARBIKETAN!
www.biokdekorazioa.com
Santa Klara, 26 behea ezkerra
Te.: 943 74 15 52 / 606 43 11 20
Urte berri on!




ESTUDIOS
ARRILLAGA
Proiektu eta erreformak
Gremioen zuzendaritza
Altzarigintza osoa
Arragueta 12. EIBAR
Tel. 943 20 06 98
Errosario 15. ELGOIBAR
Tel. 943 74 40 19




API
Burtsa
informatikoa
317
api
GABILONDO
INMOBILIARIA AGENTZIA
Zuzenbidean lizentziatua
API
Edurne Gabilondo Loyola
Jose Mª Azpeleta Iturricastillo
Jai zoriontsuak denoi
Errosario 21, behea • ELGOIBAR • Tel: 943 74 44 67


Iriondo
taberna
Mila esker elgoibartar guztioi eta eguberri on!


PNEUMAX
ENPRESA
PNEUMAX S.A. enpresa, hau da, Italiako PNEUMAX S.P.A.k Espainian duen filiala, 25 urte baino gehiagoko esperientzia daukagu automatizazio pneumatikoaren alorrean.
Gure Elgoibarko instalazioek 1.000 m²-ko azalera dute estrategikoki kokatuta dagoen industri-poligonoan.
KALITATEA ZIURTATZEKO
SQS sistema
ISO 9001/EN 29001
Erreg Zk.: 10677-01
PRODUKTUAK
• Bulboak eta elektrobulboak
EGITURA
PNEUMAX S.P.A.
Gabon zoriontsuak herritar guztioi!
PNEUMAX
PNEUMAX S.A.
Olaso, 34 • Tel: 943 74 41 44-74
Faxa: 943 74 48 76
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

[ 15 ]

15 urteko errepasoa



Kiroldegiko rokodromo egin berrian, lehen aldiz jokatu zen Elgoibarren Euskal Herriko Eskalada Txapelketa. Josune Bereziartu eta Gotzon Gardeazabal izan ziren garaile.



Mintxetako kirolgunea inauguratu zuten irailaren 27an. Futbol zelaia, lasterka egiteko pista, harmailak, aldagelak eta bulegoak zabaldu zituzten.



CD. Elgoibarrek diamantezko ezteiak ospatu zituen. 75 urte erraz esaten dira, baina ez dira hain erraz betetzen. Haundi taldeak lorpen handiak lortu zituen.






Hauteskunde Orokorretan EAJ-PNV nagusitu zen Elgoibarren 2.114 botorekin. Bigarren PSE-EE alderdia geratu zen 1.353 botorekin, eta HB, hirugarren 1.194 boto eskuratuta.



Euskadiko I. Limousin arrazako ganadu lehiaketa ganadu lehiaketa egin zen Elgoibarren San Bartolome jaietako ferian, abuztuko azken zapatuan.

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

URKIDI
AHOLKULARITZA
Antonio Urkidi
Josefina Fernandez
Liberty
Aseguruak
Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12

MEKANOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar
★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ PLANOEN BIRREGILEAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

Malape taberna
Orain astegunetan
San Frantzisko, 60
tel.943 74 19 43

# [ 1994 ]

Elgoibar eta Azkoitia arteko 17 kilometroko errepidea inauguratu zuten maiatzaren 20an. Bi herrietako alkateak eta Gipuzkoako ahaldun nagusia izan ziren bertan.





Herriko Antzokia inauguratu zuten ekainean, ia urtebeteko berritze lanen ondoren. Ordutik hamaika pelikula, antzezpen, jaialdi... ikusi ditugu bertan elgoibartarrok.






Elgoibarko Herriak 25. Txiki Eguna ospatu zuen Mauxitxa Txarangarekin. 1970. urteko Txiki Egunean atera ziren kalera lehenengo aldiz, eta ordutik ez dute hutsik egin.




Herriko hainbat intsumiso epaitu zituzten. Elgoibarko Talde Antimilitaristak epaiketen aurkako manifestazio eta mobilizazioak antolatu zituen.



Morkaiko Mendizale Elkarteak Karakateko igoera antolatu zuen lehen aldiz. J.M. Fernandez Suso izan zen irabazle 31'34"-ko errekorrarekin.

Bukatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA

MAHASTI
Jose Angel Zabala
URDAITEGIA eta ARDANDEGIA
Merkatu Plaza, 30-33-34 • Tel.: 615 76 03 72


murrplastik
KABLEENTZAT KATEAK
IDENTIFIKAZIO SISTEMAK
KABLEENTZAT PLAKAK
TUBOAK ETA ERRAKOREAK

SKANDALO
OIHALAK
MERTZERIA
NEURRIRA EGINDAKO JANTZIAK
*Gabon jai zoriontsuak!*
San Bartolome, 19 • Tel: 943 74 35 95



Umeen aisialdian laguntzeko Atxutxiamaika Begirale Taldea sortu zen Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen baitan. Gaur egun ere, tinko ari dira lanean.




Urte luzetako lanaren ostean, Sigma lantegiak ateak itxi zituen eta 250 langile lanik gabe geratu ziren. Elgoibarko industriaren historian pisu handia izan du Sigmak.



Tren istripu larria izan zen Eibarren, Azitain inguruan. Ezbehar hartan bi elgoibartar hil eta hiru zauritu ziren. Une gogorrak izan ziren.

**Gabiola GESTORIA**

- Ibilgailuak
- Garraioak
- Gai orokorrak

AXA ASEGURUAK

San Frantzisko, 22 - Tel-Faxa: 943 74 07 97 - ELGOIBAR

**Maria Urizar**

ILEAPAINDEGI MISTOA eta SOLARIUMA

Jai Zoriontsuak pasa itzazue!

Errosario, 9-1 ezk. ☎ 943 74 44 89

**LARRAÑAGA AUTOESKOLA**

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Tel: 943 74 10 11

*Zorionak eta urte berri on!*

Herriko koadrila batzuk danborrada berreskuratu zuten, bederatzi urtez desagertuta egon ondoren. Guztira 130 lagunek hartu zuten parte eta, horien artean, lehen aldiz hainbat neska izan ziren. Gaur egun Trinitateetako Danborradaren Batzordea daukagu eta azken bi urteotan sekulako ikuskizuna antolatu dute Trinitate jaietan. Elgoibarko danborradak ez dauka beste herrietakoen inbidiarik.






Urteetako borroka izan da intsumisoena, harik eta derrigorrezko zerbitzu militarra edo soldadutza desagerraraztea lortu duten arte. Elgoibarren ere makina bat gaztek gogor jardun dute borrokan intsumisioaren alde. Intsumiso asko epaitu zituzten eta batek akaso zigorrik gogorrena dena ere jaso zuen 95ean, kartzela. Gazte horiei esker, gaurko elgoibartarrek ez daukate soldadutzara joan beharrik.

IMH
Makina Erremintaren Institutua

Makina Erremintaren Institutua
Azkue Auzoa, 1- 20870 Elgoibar
Tfnoa. 43744132
imh@imh.es - www.imh.es



Jai zoriontsuak eta urte berri on!

# [ 1996 ]

Garai batean jauntxoen atseden-leku izandako Altzolako bainuetxeak 150 urte bete zituen. Gaur egun ez dago bainuetxerik, baina bertako ura komerzializatu egiten dute.





Euskararen erabilera suspertzeko "Gurean Bai" hitzarmena aurkeztu zuen Elgoibarko Izarrak. Herriko 51 taldek hartu zuten proiektuan, parte hartzeko konpromisoarekin. Elkarteekin hasi ziren lehenengo eta merkatariekin ondoren. Gaur egun ostalaritzara egin du jauzia eta herriko jatetxe eta tabernak euskalduntzen ari dira.


BIKAIN
AHOLKULARITZA

• Zerga-aholkularitza
• Lan-aholkularitza
• Kontabilitate aholkularitza

Tel./Faxa: 943 74 45 57
e-posta: bikain@fonocom.es

Antonio Arrillaga, 4 behea
20780 **ELGOIBAR**

**OLASO**
**TABERNA-JATETXEA**
Gosariak - Menuak...
*Gabon jai zoriontsuak!*
Olaso Industrialdea, 15 · Tel. 943 74 31 85 - 636 01 57 07

*Judith*
EDERGINTZA
Errosario Kalea, 19 - Tel.: 943 74 29 50 / 667742118



Kilometroak 96 ikastolen aldeko jaia ospatu zen Elgoibarren urriaren 6an. Eguraldi txarrari aurre eginez 55.000 lagun bildu ziren Elgoibarren.



Elgoibarko herria sortu zeneko 650. urteurrena bete zen abenduaren 20an. Urtebetetze hori ospatzeko kutxa bat lurperatu zuten udaletxeko arkupeetan.

LAGUN ARO
SEGUROS - ASEGURUAK
Lagun Aro Automobil-aseguru Berria
Orain ordezko ibilgailua izateko aukera
www.notedejaretirado.com
www.seguroslagunaro.com
Santa Ana, 5 • 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel. 943 74 73 70 • Fax 943 74 10 51
ygarcia@seguroslagunaro.com
Zorionak eta urte berri on!!

DEBAPE
INPRIMATEGIA
komunikazio grafikoa
• Diseinu grafikoa
• Offset litografia
• Fotokonposizioa
• Publizitate diseinua
• Era guztietako iragarki komertzialak
• Inpresio digitala
Gabon zoriontsuak!
Sigma industrialdea.
Xixilion 2 - 2. solairua - 7 lokala - **ELGOIBAR**
Tel.: 943 74 40 58 • Faxa: 943 74 41 78
E-posta: debape@telefonica.net



Sari askoren jabe da Edu Arrillaga, denak baliozkoak, baina 1997an Imagina Ezazu Euskadi lehiaketan saritu zuten. Eduren karretak ez dauka amaierarik.



Abuztuan, San Bartolome jaietan zabaldu zituen ateak Elgoibarko Gaztetxe berriak. Jarbe enpresako lokaletan kokatu zen, jabeekin akordio batera iritsita.

HERRI ESKOLA

*Eguberri*
*eta Urte berri On!*



Madala inguruan kokatutako Alkortako etxea bota egin zuten abenduaren 12an. Inguru horretan etxebizitzak eraiki zituzten urte batzuk geroago.



Haundi futbol taldea 2B mailara igo zen Torrelavegako Tropezon taldeari irabazita. Liga amaiera bikaina izan zen Haundirentzat eta Elgoibarko futbolzaleentzat.



Bost urteko lanen ondoren, 1997ko ekainean inauguratu zuten San Bartolome Parrokia erabat berrituta. Dotore eta tinko dirau orain ere.

karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 modulua
Tel. 943 740 570

HAIR'S
ILEAPAINDEGIA
San Bartolome, 6 behea • Tel.: 617 988 130
Asteartetan jubilatuen eguna
Urte berri on!
Ostiraletan egun guztian zehar edukiko dugu irekita (9:00-19:00)

# [ 1998 ]



Sallobente-Ermuaran auzoko Artazo baserria suak erre zuen ekainaren 19an. Bertako bizilagunek guztia galdu zuten. Herritarrek baserria berregiteko dirua bildu zuten.



Erreminta Makinaren Museoak ateak ireki zituen. Luis Arrieta, Pepe Arana eta Cruz Arriola elgoibartarrek omenaldia jaso zuten, bizitza osoan erreminta makinaren munduan jardun dutelako.



Artzain txakur txapelketa egin zen estreinakoz Sallobente-Ermuaran bailaran. Espainiako, Euskal Herria eta Gipuzkoako txapeldunek hartu zuten parte eta Jon Osoro izan zen garaile.


On informatika
Upaiz Zaharra 6
943 741 846
www.oninformatika.com
on@oninformatika.com

ZAZPI INFORMATIKA
zazpi@telefonica.net
Pedro Muguruza, 8 behea
Tel./Faxa: 943 74 37 87

MICRO SYSTEM
INFORMATIKA
DENDA
Lerun industrialdea, 6
ZERBITZU TEKNIKOA
Jausoro Plaza, 3
ELGOIBAR
Tel.: 943 74 02 40
E-posta: info@elgonet.es

Softlan
analisia & programazioa
Antonio Arrillaga, 1
Tel.: 943 74 81 05
info@softlan.biz
www.softlan.biz

Pedro Sodupe "Gelatxo" soinu jotzaile elgoibartarraren omenez, Trikitilari eguna ospatu zen uztailan. Euskal Herri osoko 150 trikitilari elkartu ziren Elgoibarren. Azkenera arte jarraitu zuen Gelatxok musika jotzen. Tamalez, agur esan digu aurten Pedro Sodupek. Gaixorik zegoen Mendaroko ospitalean eta 79 urte zituela hil zen urtarrilean.





San Bartolome Egun batean dantza egin zuten Haritz Euskal Dantza taldeko dantzariek estreinako aldiz soka-dantza. 1998. urtean 25. aldiz egin zuten. Euskal dantzak badu etorkizunik Elgoibarren. Gaur egun jende berria dabil Haritz Dantza taldean. Dantzaren sokak ez dauka etenik.

Idama

- EDERGINTZA
- ILEAPAINDEGI MISTOA - MAKILAJEAK
- EMAZTEGAI/SENARGAIENTZAKO ORRAZKERAK
SOLARIUMA





Urte Berri zoriontsua denoi!

Antonio Arrillaga, 6-8 ☎ 943 74 40 26 ELGOIBAR

# [ 1999 ]

Lanaren aberastasunaren banaketa eta 35 orduko lan-astea aldarrikatzeko, greba orokorra izan zen maiatzaren 21ean. Denda eta taberna gehienak itxita egon ziren 12:00etatik aurrera.







"Jo Ta Sua" Realeko peña aurkeztu zuten. Ekitaldian Realeko lehen taldeko hainbat jokalariz gain, Josu Ibarra eta Zuhaitz Gurrutxaga Realeko futbolari elgoibartarrak izan ziren. Iaz bigarren mailara jaitsi zen Reala, baina "Jo Ta Sua" peñako lagunak Anoetara joaten jarraitzen dute talde txuri-urdina animatzera. Denon laguntzaz maila berreskuratzea da helburua.

- Kontabilitatea
- Asesoria fiskala
- Asesoria laborala
- Abokatuak

ASESORIA GOAR

San Bartolome,2 Tel: 943 74 26 74 / Faxa: 943 74 21 29
asesoriagoar@euskalnet.net

OLATZ, s.l.
SUKALDE eta KOMUNERAKO
ALTZARIAK
Pedro M. Urruzuno, 8 · Tel: 943 74 38 44

INMUEBLE AGENTZIA
ARBELOA
Jai zoriontsuak!
INMOBILIARIA
arbeloa@telefonica.net
San Frantzisko, 34
Tel.: 943 74 84 27



Danobat Taldeak, erreminta makina alorrekoak, "Made in Euskadi" esportazio saria jaso zuen. Hurrengo urtean berrogeita hamar urte egingo zituen.



EAJ-PNV berriz ere nagusitu zen Udal Hauteskundeetan eta Udalbatzak Guillermo Garate izendatu zuen alkate. EAJ-PNVk 7 zinegotzi eskuratu zituen; EHk, 4; eta EAk, PPk eta PSOEk bina.



Otsailean hainbat herritarrek butano biltegietara jo behar izan zuten butano bonbonak lortzeko, bonbona garraiolarien greba zela-eta.


albe

LAUKETAK - MORTASAKETAK
BROTXAKETAK
NONIUS GRABATUAK

GABON ZORIONTSUAK ELGOIBAR!

Sigma Industrialdea · Xixilion, 2 beheko solairua 9
Tel. 943 743 286 ELGOIBAR (GIPUZKOA)
talbe@euskalnet.net / www.albesl.com

NAVA S.L.
Inprimategia
Santa Ana Kalea, 44
Tel./Fa.: 943 744 451
20870 ELGOIBAR

ZORIONAK
eta
URTE BERRI ON!!

ARNOPE
20830 MUTRIKU (Gipuzkoa)

Jaika
jatetxea
Ondo pasa gabonak!!
Pedro Muguruza, 27 behea - Tel.: 943 74 10 29

# [ 2000 ]



WORLD BUSINESS NEWSPAPER

FINANCIAL TIMES

WORLD NEWS: EUROPE

Spain's machine tool industry finds strength in numbers

Elgoibar “Financial Times” egunkari ekonomiko ezagunean agertu zen. Ekainaren 27ko alean herriko enpresei buruzko artikulua kaleratu zuten, Elgoibarren irudia mundura zabalduz.



Euskalduntzeari eta euskarari bultzada emateko “Arigera proiektua”aurkeztu zuten Udalak, Elgoibarko Izarrak eta herriko bi euskaltegiek.



Drogomenpekotasunerako Errotatxo Elkarteak hamar urte egin zituen. Lan gogorra egin du urteetan zehar elkarteak, baina desagertzear dago. Erreleboaren zain daude elkarteko kideak.

## [ OSASUN GIDA ]

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda
(“Dieta erraza” mehetzeko tratamendua... Medikuntza naturala, Bach loreak, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak.)
San Bartolome, 25
Tel: 943 74 40 31
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkartea
Urasandi, 9
Tel: 943 74 85 93 (Idoia)
685 722 131
Astearte eta ostegunetan:
10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/
18-19:30/20-21:30
*Mendaro*
Astelehen eta asteazkenetan:
10-11:30/15-16:30
Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

### OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista
San Bartolome, 10
Tel: 943 74 37 34
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri
(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21
Tel: 943 74 03 59
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00



Herritarrak euroa, moneta berria, erabiltzera ohitzeko euroaren kanpaina egin zuten urriaren 20an hasita. Herriko 51 denda eta tabernek hartu zuten parte bertan.



Gaz-T aisialdi taldea aurkeztu zuten abenduaren 18an. Gazteentzako aisialdi egitasmoak antolatzea izan da hasieratik Elgoibarko Izarraren talde honen helburua.


**HORTZ KLINIKAK**
Irale
Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)
Tel: 943 74 36 79
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)
Tel: 943 17 71 34
e-posta: irale@irale.com
weba: www.irale.com

**FISIOTERAPIA**
Ainhoa Fisioterapia
Eragozpen fisikoa egongo balitz etxez etxeko zerbitzua eskeintzen da.
Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745
(Goiz eta arratsaldez)
Jausoro, 6 behea

Amalurra Fisioterapia
Ordubeteko tratamendu manualak.
Goiz eta arratsaldez.
San Frantzisko, 58 behea (Maalan)
Tel.: 943 53 14 63
Olatz Fisioterapia
(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)
San Roke, 1
Tel. 696 821 149
Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

**ORTOPEDIAK**
Itziar Sarasketa
San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

**PODOLOGOAK**
Oinberri
Errosario kalea, 25
Tel: 943 74 17 95
Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30 / 15:00-19:30

**MASAJISTAK**
Victoria Iraegi
(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea.)
San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)
Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera 8:00 - 14:00



Mikel Alberdi preso politiko elgoibartarra aske utzi zuten, hamazazpi urte kartzelan egon ondoren. Herritarrek harrera beroa egin zioten.



Inazio Bereziartua Musika eskola berria inauguratu zuten. Plaza Txikiko eraikinak, besteak beste, musika taldeek entsaiatzeko gelak, auditorioa... ditu.



Asier Marcilla Plaza 2001eko urtarrilaren 1ean jaio zen. Herriko milurteko lehen umea ez ezik Euskal Herriko lehena ere izan zen bera.

Lanbroa




Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 • Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Txintxo

Inmobiliaria

Gabon jai zoriontsuak

San Bartolome, 2 behea

Tel: 943 74 26 74

ITURRI
Taberna

Zorionak eta
Urte berri on!



Foruen plaza, 5
TEL: 943 74 28 97

Gazte Informazio Guneak ateak ireki zituen Kultur Etxean. Bertan lanari, aisialdiari, kulturari eta oro har gazteen inguruko gaiei buruzko informazioa jaso daiteke.





Erreminta Makinaren Institutoak hamar urte egin zituen. Gure herria erreminta makinren hiriburutzat dute askok. Hemendik kanpo industriarengatik da ezaguna Elgoibar. IMHk lan handia egiten du gazteen formazioan.




ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



Abuztuaren amaieran Urasandi auzoan eskailera mekanikoak inauguratu zituzten. Lau zati ipinita daude eta gerora gehiago jartzeko asmoa dago.



Ekainean Mintxetako aire libreko igerilekuak inauguratu zituzten. Eguraldi ona lagun, udako lehen egunetan jende askok hartu zuen bainua bertan.

JOSE MARI ARANZ
EDARI BANA
eva
GURELESA
INSALUS
Santa Ana, 41 - ☎ 943 74 10



1936ko Gerra Zibilean hildako 12 gudariren gorpuak Elgoibarko San Migel-Aiastia bailaran eta Azkaraten lurperatuta daudela eman zuten jakitera.




Elgoibarren amaitu zen Euskal Herriko Itzulia 2002. urtean. Aitor Osa Itziarko txirrindularia izan zen lasterketa horren irabazlea. Jende asko bildu zen jarduera horren bueltan.



Miski Taldeko motorra da Gemma Agirregomezkorta. Peruko Cuzco herriari laguntzeko negutegia eraiki zuen 2002an eta Elgoibar izena jarri zion.

ZAMENDI "KATEI"
TZAILEA
41 • Mobila: 659 77 23 89

# [ 2003 ]

Javier Arriola, “Arriola IV.” pilotaria hil zen. Munduko txapelduna izan zen 1962an eta hiru aldiz Espainiako txapeldun. 1934. urtean jaio zen Parapan baserrian eta txikitatik pilotarekin gozatu zuen. Herrian sekulako oihartzuna izan zuen Iruñean lortutako garaipenak, eta Citroen 2CV batekin zeharkatu omen zuen herria, lortutako txapel mundiala guztiei erakutsiz.





Mintxetak hamar urte egin zituen. Kirolzaleen topagune paregabea izan da Mintxetako gunea urteotan. Hasierako proiektuan futbol zelaia eraikitzea aurreikusten zen bakarrik, baina denborarekin igerilekua eta guzti egin zuten. Jorge Montañola kataluniarra izan zen arkitektoa. Egitarau oparoa prestatu zuten 10. ureurrena ospatzeko. Elgoibartar mordoa joaten da Mintxetara kirola egitera.

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON !
arkhiru arkitektoak
943743145 Sigma

PREZISIO MUNDU BAT
MYL
MYL S.A.
Zorionak eta Urte Berri On!
Erramone poligonoa, 1-3-5 - 20850 **MENDARO**
Tel. 943 75 70 03 · Faxa: 943 757 130
E-posta:myl@myl.es · http:www.myl.es



Hemeretzi urte kartzelan pasa ondoren, aske laga zutien Iñaki Jaio. Harrera beroa egin zioten senideek eta lagunek. Herritar asko bildu ziren bere etorrera ekitaldian.

Marivi Agirregomezkorta alkate izendatu zuten. PNV-EA koalizioak 12 zinegotzi lortu zituen, 3.683 botorekin. Bigarren indarra Einbiou plataforma ilegalizatua izan zen, 954 botorekin, eta bi eserleku exijitu zituen. PSOEk eta PPk bina zinegotzi eskuratu zituzten eta EBk, 1.



NOVAK S.L.

MEKANIZATUAK

OLASO INDUSTRIALDEA 27
TEL. 943 74 85 73 · FAXA: 943 74 39 01
novak@menovak.com
20870 ELGOIBAR

Zorionak eta Eguberri On!

# [ 2004 ]



Haundi Futbol taldea 3. mailara igo zen eta izugarrizko harrera egin zioten herritarrek taldeari. Urte berean Mintxetako futbol zelai berria inauguratu zen.



Jarbe enpresa, Alba galdategia eta Etxezuri baserria botatzen hasi ziren Madala 2 proiektuari dagozkion etxebizitzak bertan eraikitzeko. Gazte asanbladak gaztetxetik irten egin behar izan zuen.




Eguenetako azoka Sigmara eroateko erabakia hartu zuen Udalak. Irailaren 2tik aurrera, merkatariek ezin izan zituzten Plaza Handian euren postuak jarri. Erabaki horrek zeresan handia eman zuen.

talleres ZAILDU S/L

**MAKINARIA KONPONTZEN ESPEZIALISTAK**
Mandrinadorean planoekin egindako lanak
Fresadora, Taladroa, Tornua eta Errektifikadorea

*Gabon jai zoriontsuak elgoibartar guztioi!*

Santa Klara, 40 · Tel 943 74 07 60 · Faxa: 943 74 39 95

ecenarro
Barruko erropak • Umeentzako erropak
San Frantzisko, 10 Tel: 943 74 26 19

BRONyMEC
- *Metal ez ferriko eta plastiko teknikoak*
- *Mekanizazio lanak*

*Arriaga auzoa*
*Tel. 943 742 807*

www.bronymec.com / comercial@bronymec.com



Zapatuetako botelloiari amaiera emateko alkoholaren kontrako ordenantza berria onartu zuen Udalak. Kalean edatea debekatu zuten.



Josu Lariz Altzolako euskal presoa aske gelditu zen. Argentinan preso egon zen eta Espainiako Gobernuak egindako hirugarren estradizio eskaera atzera bota zuen Argentinako justiziak.

NATURHOUSE
Dietetika eta nutrizioa
Urte berri on!
Ordutegia
09:00-13:00
16:30-20:00
San Frantzisko, 26
Tel.: 943 741 078

NORFO
Ondo pasa Gabonak!
• ELKARTEEN ALDAKUNTZA ELKARTZE ETA ERAKETA.
• LAN, KONTABILITATE eta FISKAL AHOLKULARITZA.
• ALOKATZE KONTRATUAK
• JUBILAZIOA (Pentsioak)
P. M. Urruzuno, 6. Tel: 943 74 31 40 Faxa: 943 74 41 23

Olaia
estetika
Egin ezazu otsailean laser depilazioa eta ahaztu udan depilatzeaz.
San Inazio, 4 behea - Tel.: 943 74 27 25
• Garbiketak
• Makilajeak
• Aurpegi-tratamenduak
• Gorputz-tratamenduak
• Solariuma
• (horizontala eta bertikala)
• Masajeak
• Manikurak
• Depilazioak
ONDO PASA GABONAK!!

Laguarin
PANADERIA • OKINDEGIA
• Baserriko produktuak • Taula iberikoak • Gabonetako otarrak
• Ardoa, txakolina eta sagardoa
San Bartolome, 10 - Tel.: 637 51 22 24



Hogei urte baino gehiago kartzelan pasatu eta gero, Inazio Iriondo elgoibartarra etxera itzuli zen ekainaren 7an. Omenaldi beroa egin zioten Elgoibarren, eta txalo eta besarkada artean hartu zuten.



Mausitxa baserriko Rosa Mari Salegi eta Jesus Ansola gaztagileek Ordiziako artzain gazta txapelketa irabazi lehen aldiz. Olaberriko Hotel Castillok 6.000 euro ordaindu zituen gazta erdiagatik.



3.356 herritarrek merkadilloa herrian gelditzearen aldeko botoa eman zuten Elgoibar Bizirik Herri Plataformak antolatutako galdeketan. Guztira 3.378 elgoibartarrek parte hartu zuten.

Gabon zoriontsuak pasa!!
IRATXO
ROCK-KAFEA
San Frantzisko, 41 · Tel. 943 74 02 57

AZALEA edergintza
MARI KARMEN BERECIARTUA
Estetizista - Bisajista - Masajista
GORPUTZERAKO eta AURPEGIRAKO tratamenduetan **azken berrikuntzak**
Trenbide kalea 3, behea (estazioa parean) - Tel.: 943 74 03 10

USATORRE
Taberna
San Antolin, 6 Tel. 943 74 17 99
Jai zoriontsuak igaro!

Urruzunoko Babes Ofizialeko 120 etxebizitza inauguratu zituzten uztailean. Ekitaldian Javier Madrazo etxebizitza sailburuak eta Migel Angel Mujika Udaleko Hirigintza arduradunak parte hartu zuten.





Eibarko eta Soraluzeko gazte talde batek Lerun Txiki baserria okupatu egin zuen. Espekulazioari aurre egiteko bide bat ireki zuten.

press to
Kalitatezko tindategia
Arropen eraldaketa eta konponketa
San Frantzisko, 32 Tel. 943 74 35 08

Gloria
okindegia
Gabon zoriontsuak pasa!
- Delicatessen
- Gabonetako otarrak
- Urdaitegia
Upai Zaharra, behea - Tel.: 635 74 71 45

lombok
- Opariak
- Dekorazioa
- Altzariak
Errosario, 30 behea · Tel. 943 53 10 68
Jai zoriontsuak!


# [ 2006 ]

Abenduaren 23an eman zuen Arima Beltza talde elgoibartarrak azken kontzertua Kultur Etxeko sotoan. Euskarazko blues doinuak ezagun bihurtu zituzten eta hamar urtetan hamaika kontzertu eta istorio bizi izan zituzten. Hiru disko laga zituzten bidean. Agurra ez omen zen betiko. Adierazi zuten ateak irekita egon zitezkeela eta berriro elkartzeko aukera bazegoela.





50 urte bete ziren Gau Eskola martxan jarri zenetik eta Elgoibarko Izarrak, Udal Euskaltegiak eta AEK-k, Udalaren laguntzarekin Pako Juaristiri, ekimen horren motorrari, gorazarre egin zioten. Musika Eskolako auditorioa jendez gainezka zegoen, eta akorduan izan zituzten euskara ikasteko ahaleginak egin dituzten herritarrak.





**ZUBACOR, S.L.**

Ondo pasa Gabon jaiak!

Ibaitarte kalea, 11
Tel: 943 74 08 44 · Faxa: 943 74 26 66
**zubacor@zubacor.com**
**www.zubacor.com**





1949an ireki zituen ateak lehenengo aldiz eta 57 urte geroago inauguratu zuten Txarriduna hotel berria. Bi solairutan banatuta, 22 logela ditu.




Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak elgoiBARREN.net ataria jarri zuen abian, Udala eta IMHren laguntzarekin. Elgoibarko orainkaria izatea da atari horren helburua.



Bilboko Udaleko Euskara eta Kultura Sailaren Musika Elkarteko buru izendatu zuten Txomin Mujika. Bere baitan Musika Eskola, Musika Banda, Txistulari Banda eta Ikasfolk daude.



# [ 2007 ]



Aisiakin enpresa itxi egin zen. 50 urteko ibilbidearen ondoren, itxi zituen ateak. Langile eta enpresarien artean istilu askotxo izan ziren.



Euska Jaien mendeurrena ospatu dugu aurten. 1907ko uztailean egin ziren Euskal Jaiak gure herrian eta aurten mendeurren hori ospatzeko hainbat ekitaldi egin ziren.



Jose Antonio Osoro "Katxo" omendu zuten Santa Zezilia Egunean, Udal Musika Bandan egin duen ibilbideagatik. 50 urte egin zituen Katxok Udal Musika Bandan.





*Gabon zoriontsuak guztioi!*

Entzutegi Nazionalaren aginduz bi elgoibartar independentista atxilotu zituzten: Arnaldo Otegi mahakidea maiatzean eta Juan Mari Mendizabal 18/98 sumarioko auzipetua azaroan.







EAJ-PNVren zazpi zinegotziek Alfredo Etxeberria izendatu zuten alkate. Jeltzaleek 1.657 boto jaso zituzten. ANVk, legez kanpo eta 1.041 bozkarekin, hiru zinegotzi exijitu zituen. PSOEk lau eskuratu zituen, 1.007 botorekin. EAk hiru eserleku lortu zituen, EB-Aralarrek, bi, eta PPk, bat.



*Esteban Arrillaga Arrillaga*

## ESKERTZA

2007ko abenduaren 12an hil zen ***Esteban Arrillaga Arrillaga**ren sendiak* bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

# DAGOENEKO EZ DA UMEA!

Akordatzen gara jendeak zelako aurpegiak jartzen zituen astekari bat prestatzen geniharduela entzuten zigunean. 1992ko lehen hilabeteak ziren. "Astekari bat Elgoibarren?! Astekaria ez, hori astakeria da! esan zigun batek baino gehiagok. Eta barre ere egin ziguten aurrekontuaren zati handi bat publizitatetik lortuko genuela entzuterakoan. Baina ez genuen etsi. Ilusioak gaina hartu zien arazoei eta aurrera egin genuen; ez genekien oso ondo nora, baina bidea ekinez egiten dela pentsatu genuen guk ere.

Hala, 1992ko abenduaren 24an ikusi zuen argia gure txikiak. Olentzerok Elgoibarko herriari egindako erregalua izan zen. Txikia zen gizajoa; pisurik ere apenas zuen. Kosta egiten zitzaion ostiraletan kalera irten eta zuon etxeetako bidea hartzea; baina, tirriki-tarraka izan arren, ostiralero-ostiralero hutsik egin gabe lortzen zuen ehunka etxetara iristea. Hori bai, BARREN ez da sekula bakarrik egon. Beti izan du jendea inguruan, eta hamaika elgoibartarren eskutik helduta ibili da hara eta hona. Ume guztien moduan, BARRENek ere entzun du errietaren bat edo beste, baina beti sumatu izan du jendearen berotasuna. Horregatik jotzen du zuon etxeko tinbrea konfiantza osoarekin; badakielako atea zabalduko diozuela; badakielako zuon etxeko sukaldean edo egongelan lekutxo bat egingo diozuela asteroko berriak elkarrekin ikusi eta irakurtzeko.

Baina BARREN hazteko bokazioarekin jaio zen eta, urteek aurrera egin duten bezala, txikia handitzen joan da poliki-poliki. 15 urte ez dira alferrik pasa, eta asko aldatu da. Txikitako erretratuak ikusterakoan beste bat ematen du, ezagutzea ere kosta egiten da. Baina aldatu bada ere, bera da: BARREN da. Gure astekaria; elgoibartarron astekaria.

Esan bezala, 15 urte bete ditu BARRENek. Eta oraindik *edade maiorera* iritsi ez arren, BARREN ez da ume bat. Eta umea ez denez, besteak beste, oraingo arropak erantzi eta berriak jantziko ditu 2008ko urtarrilaren 11tik aurrera. Arropa ausarten bila ibili gara, arropa gazte eta erakargarriaren bila. Urtarriletik aurrera, gainera, koloretako arropak jantziko ditu; koloretan ikusiko dugu, bai kanpotik eta baita barrutik ere.

> **[ BARREN umea ez denez, oraingo erropak erantzi eta berriak jantziko ditu ]**

BARREN ilusioz dago etapa berriari ekiteko. Hori bai, nerabe guztien moduan bere zalantzak eta beldurrak dauzka, eta urduri dago, urtarrila noiz iritsiko zain. Gabonetan irten ere ez dela egingo esan digu. Etxean sartu, arropa zaharrak kendu eta berriak probatzera joan da.

**ELGOIBARKO IZARRA**
**Kultur Elkartea**

***Oharra:*** *ahaztu baino lehen, BARRENek eskerrak emateko esan digu. 15 urteotan bere inguruan egon zareten guztioi eskerrik asko esateko agindu digu.*

EL GAUTXO

Gabonetarako enkarguak hartuko dira:

- Erregetako roskoia
- Mota guztietako tartak
- Tarta gozo eta gaziak



ZURE ETXERA IRITSIKO DIREN EZUSTEKO GOSARIAK OPARITU

*Opari berezi bat egin nahi baduzu... gosari eder batengatik egin apostua!*

bokatak

entsaladak

pizzak

gozoak



*Gabon zoriontsuak!*

Errosario, 31 • ELGOIBAR • Tel.: 943 53 17 71



*Zorionak eta urte berri on!*

MAPFRE

San Frantzisko, 40 - Tel: 943 74 05 82 / 943 74 14 04 - Faxa: 943 74 17 07 - E-posta: *patxiza@mapfre.com*


Ipini irudimena zure bizitzan.
Gabon zoriontsuak pasa itzazue.
dgraff
Santa ana, 8
20870 Elgoibar ı Gipuzkoa
Tel. Fax 943 74 12 59
e-mail d-graff@d-graff.com
www.d-graff.com


Aubixa
Kultur Erakundeak
eta
Euskal Girotze Barnetegiak
Gaixo daudenak azkar sendatu
eta arindu nekeak.
kanporatuak etxera itzuli
deuseztatu giltzapeak.
esperantzaren argi txintxa bat
piztu beza gizarteak.
Gabon goxoak opa dizkizu
izanaz elkar maiteak.
Euskal Girotze Barnetegiak
eta bertako jendeak


BOLINTXO
OKINDEGIA
Gabon zoriontsuak!
San Frantzisko, 17
Tel.: 943 74 33 78


disArt
diseinu estudioa
-DEKORAZIO AHOLKULARITZA
-GREMIOEN KOORDINAZIOA
-ALTZARIAK
-INTERESIK GABEKO FINANTZAKETA
Pedro Muguruza Etorbidea 5 Elgoibar
Tel/fax: 943 743245
disart@disartestudio.net
www.disartestudio.net


Muruamendiaraz gozotegiak
Muruamendiaraz
ELGOIBAR
San Bartolome, 34-35 - Tel. 943 74 03 45
Gabon jai gozo-gozoak
opa dizkizue herritar guztioi
Urte Berri On!
Muruamendiaraz


Zubia
Jatetxea
Etorri gu bixitatzera
- Dastatzeko menua
- Eguneko menua
- Pintxoak
Bainuetxeko zumardia kalea, 2 behea
20860 ALTZOLA


GOKI ERREFORMAK S.L.
Honako Instalazioetan baimendutako enpresa:
Klimatizazioa
Berokuntza
Gasa
Iturgintza
Erregai likidoak (Gasoleoa)
EGUZKI - ENERGIA
ERAKUSKETA
Bainugelak
Ateak
Lurrak
OBRAK ETA
PROIEKTUAK
Aroztegia
Fatxadak
Teilatuak
www.gokierreformak.net
goki@gokierreformak.com
Olaso pol., 15-68 Pb. ELGOIBAR • Tel. 943 74 28 80 / 943 74 42 23 / 943 74 46 40 - Faxa 943 74 45 87



Ni Gipuzkoa naiz.
Guztiok gara Gipuzkoa.
Zurekin egingo dugu Gipuzkoa. Eta Gipuzkoa hobea lortzeko pausoak emango ditugu guztion artean. Plana aurrera egitea da.
2007/2011 Kudeaketa Plana
GIPUZKOA
zurekin, aurrera

# 15 urte, 15 iritzi BARRENi buruz

## Paul Hernandez *BARRENen banatzailea*



Umea nintzela ezagutu nuen BARREN. Gurasoek hartzen zuten etxean eta nik ere irakurtzen nuen, baina orduan txikiBARREN atala bakarrik interesatzen zitzaidan. Eskolan egiten zizkiguten galderak erantzun eta BARRENen ateratzeak ilusio handia egiten zidan. Duela pare bat urte hasi nintzen lagun batekin astekaria banatzen eta orain etxeetara iritsi aurretik irakurtzen dut aldizkaria.

## Iñaki Insausti *Jubilatua*



BARRENek hamabost urte eta nik hamalau egingo ditut Jubilatuen Egoitzako presidente karguan. Ia batera hasi ginela esan daiteke. Hemen hartzen dut lehenengo aldizkaria eta gero etxean. Oso gustura irakurtzen dut, kexen atala gustatzen zait gehien. Aldizkari konpletoa da, denetarik etortzen da. Gauza batzuk niretzako ez dira hain interesgarriak, baina denetarik egon behar da.

## Hasier Etxeberria *Idazle eta kazetaria*



Hogeita hamar urte inguru bete nittuan arte, nere aberrixa ez zan Euskadi, Sabino zaharrak esaten zaban moduan. Nere aberrixa Elgoibar zan. Txikiegixa, seguru asko, aberri osua izateko, baiña, holako gauza intimuak erabakitzeko ez dago arau unibersalik. Geografia eta demografia afektibo guztia, gure herriko mugen neurrixetara makurtzen zan. Geroztik ikasixa dot "Elgoibarrik gabetan" bizitzen, neu ere pakistandar, islandiar edo kanadiar bat bezin mundukua bainaiz, baiña, egixa, beti falta izan jata "aberritxo" haura, zuek biztanle zaittuzten nire jaioterrixa. Gaur, autoz 45 minutura bizi naiz neure sorterrittik Hendaia honetan, lehenago Bidasoa ibaixaren beste aldian bezela, Hondarrabixan. Hala ere, beste planeta baten banengo bezela daroat neure bizimodua. Baiña bada garraixobide sentimental bat neure jaioterrixarekin abiadura supersonikoan lotzen nauena: asteroko BARREN. Hor ikusten zaittuztet erretratuetan, hau eta haura esaten, parkiak ondo edo gaizki daudela, halako hil dala eta beste haura jaixo dala... Neure benetako aberri txikiko kontuak, zein naizen gogoratzen laguntzen didatenak. Eta BARRENi esker, hor naguala sentitzen dot, hor ez egonda ere. Ba al dago munduan holako gauza bat pagatzeko dirurik?

## Olvido Deza *emakume langilea*



Denbora gutxi daramat Elgoibarren, baina oso gustura irakurtzen dut. Ostiralen batean buzoian falta bazait sekulako amorrua ematen dit. Dena irakurtzen dut, elkarrizketak asko gustatzen zaizkit, bai herrikoena eta baita kanpotarrena ere bai. Lan iragarkien atala ere oso interesgarria da. Zerbait ulertzen ez badut etxekoei esaten diet itzultzeko, baina saiatzen naiz euskaraz irakurtzen. Aldizkari polita dela iruditzen zait, konpletoa.

## Paky Espinosa *BARRENi esker lanean*



Ez dut euskara oso ondo ulertzen, baina astero begiratzen dut BARREN. Umeen eta jende ezagunaren argazkiak ikustea asko gustatzen zait. Iragarkien atala oso interesgarria da eta gainera, oso ondo funtzionatzen du. Nik BARRENei esker aurkitu dut lana, bertan ikusi nuen iragarki bat eta lanean nago. Guk ere jarri izan dugu bertan motoa edo autoa saltzeko iragarkia eta jende mordo batek deitu zigun. Umeak zaintzeko emakumea ere horrela topatu nuen.

# Zer eskaini dizu BARRENek

## Maialen Lizarazu *publizitate bezeroa*



Okindegia ireki genuenetik egin dugu publizitatea BARRENen eta oso gustura gaude emaitzarekin. Jende asko etortzen da aldizkarian ikusi gaituela esanez. Aldizkaria bera izugarri gustatzen zaigu. Ostiraletan borrokan ibiltzen gara etxean, denok nahi izaten dugu aldizkaria irakurri. Irakurterraza da eta euskaraz ondo moldatu ez arren, irakurtzeko egokia da.

## J.M. Astigarraga *Danobat*



Elgoibarri buruzko berriak gertutasunez, euskaraz eta astero jasotzeko aukera eskaintzen dizkigu BARRENek. Euskaraz egiten den argitalpen bat da, gure kultura bultzatzen laguntzen du eta horregatik gure laguntza eskaintzen diogu. Dagoen moduan ez dago gaizki astekaria, nik ez dut gaizki ikusten. Noizean behin formatoa aldatzeak mesede egiten diola esango nuke. Agian inguruko istorio zaharrak kontatzeari ekingo nioke.

## Alfredo Etxeberria *alkatea*



Hamabosgarren urteurrena dela eta, BARRENetik idatzi bat egiteko eskatzean, garai hartako oroimenak etorri zaizkit gogora. Garai hartan, Morkaiko Mendizale Elkartearen zuzendaritzako ardurak gure gain genituen eta, BARREN aldizkariaren bitartez, laguntza handia izaten genuen, herritarrei antolatzen genituen ekintzen berri emateko. Aldizkariak euskararen zerbitzuan ez ezik herrigintzan ere lan aipagarria egin duela nabarmena da. Zorionak, beraz, sorreratik hona BARREN astero-astero gure etxeetan jasotzeko ahalegina egin duzuen guztioi: bai langileei, bai arduradunei, bai kolaboratzaileei, bai babesleei; baita bertan publizitatea egiten duzuenoi ere. Gaur egun, BARREN Elgoibarko etxe guztietara iristen da, eta garai hartako helburuak lortuak dituela esan dezakegu. Badakigu Elgoibartarrok gogoz jasotzen dugula BARREN ostiralero eta oso lagungarria dela herrilanean aritzen garen guztiontzako. Bide batez, esan dezagun oso baliagarria dela euskaraz irakurtzeko. Edozein proiektuk erronka eta helburu berrituak behar ditu sasoian mantendu ahal izateko. Aldi berean, adierazle edo indikatzaile batzuen neurketak ere lagungarriak izaten dira proiektuen osasunaren berri edukitzeko. Horrexegatik, BARRENen inguruan hausnarketaren bat egitea proposatuko nuke datozen hamabost urteotan orain artekoa bezain arrakasta handia izaten jarrai dezan. Bukatzeko, aukera honetaz baliatu nahiko nuke Elgoibartarroi Gabon zoriontsua eta Urte Berri on opatzeko. Besterik gabe, ZORIONAK, eta beste hamabost urtez gutxienez, ostiralero elkarrekin egoteko aukera izan dezagula.

## Amaia Arregi *gaztea*



BARREN hartu eta lehenengo gauza TxikiBARREN atala bilatzea izaten da, nire inguruko jendea ikustea gustatzen zait, batez ere. Agurrak, elkarrizketak eta erreportajeak ere begiratzen ditut eta azkena erretratu zaharra. Gustatzen zait BARREN aldizkaria. Zerbait kentzekotan, Urruzunoren luma izeneko atala kenduko nuke, ez zait gehiegi gustatzen, ez ditut testuak ulertzen.

## Cassia Fernanda Printes *atzerritarra*



Bost urte daramatzat Elgoibarko herrian, baina ez dut euskara ulertzen. BARREN aldizkaria ez dut irakurtzen, ez daukat astirik. Nire amak, bai ordea. Izugarri gustatzen zaio zorionen atala, gure umeen argazkiak agertzen direnean irrikitan egoten da BARREN etxera noiz iritsiko den zain. Ez du ulertzen, baina umeari esaten dio itzulpen lanak egiteko. Merkatu Txikiko iragarkien atala ere oso interesgarria da, guk erabiltzen dugu, pisua edo lana bilatzeko. Zerbitzu egokia da.

# 15 urte hauetan?

## Alain Ulazia *Mendaroko irakurlea*



Ezagutzen ditut makina bat DVko *Mendaroko kartia* eta eskelak bakarrik irakurtzen zituztenak, BARREN agertu arte. Hala ikusita, jesukristoren meritua dauka, telebistaz kanpoko informazio iturri nagusi bihurtu baita. Kalean inoiz esan didate: "BARRENekoek kriston txapia eman diate...". Higuina ematen didate holako komentarioek: herritarrok eman behar genieke txapa herri-komunikabideetakoei ideiek eta ametsek elkar topatu, eraiki ala kolpatu dezaten. Hortxe ikusten dut akatsa. Herri-komunikabide xumeei laguntzeko, bertan idazteko eta ideiak adierazteko odol gehiago beharko lukete herrikideek, Elgoibarko AHTren kontrako asanbladak eskutitzetan astero egiten duen bezala. Astero halako ehun orri beharko lituzke BARRENek. Baina gehiegi irakurri duen baten delirioak dira igual hauek.

## Eva Garcia *Dublinen bizi den elgoibartarra*



Hona BARREN ez da ostiralero iristen. Ezta astean behin ere. Dublineko hiribusen moduan, batzuetan ez da iristen, eta beste batzuetan, berriz, hiru batera iristen dira. Kanpoan bizi zarenean, ez duzu BARREN azkar irakurtzen, ez zaude zure arreta jotzen duen zerbaiten bila. Ezagutzen dituzun pertsonaiak ikustea atseginez hartzen duzu. Herriaren eguneroko bizitzarekin kontaktuan jarraitzeko modu bat da. Elgoibartarren iritziak aztertzen dituzu, ia soziologo baten moduan. Zure lagunen, auzotarren, irakasleen eta dendarien argazkiak ikusterakoan, hurbiltasun-bidaia lasai batean murgiltzen zara. BARREN esker onez jasotzen dut beti. Aro digital honetan paperik gabe bizitzera ohitu naiz. Nire buzoian fakturak eta propagandak bakarrik jasotzen ditut. Horregatik, nire izenarekin kartazal marroi eta erraldoi hori iristen den bakoitzean, nire momentua iritsi dela badakit. Berezia da.

## Alberto Agirreazaldegi *BARREN sortzaileetako bat*



BARRENek zer eman didan baino, zer eman dion herriari azaldu nahi nuke, 15 urtek ematen duten esperientziatik eta distantziatik: **1. Sorpresa**: Inor gutxik espero zuen BARRENen jaiotza eta gutxiago oraindik lehen urtera iristea. Irakurleak azkar engantxatzea lortu zuen. **2. Elkarlana**: Elkarlanean proiektu politak abian jar zitezkeela erakutsi zigun BARRENek. Proiektua indarrean jartzeko lantalde baten eta Elgoibarko Izarra elkartearen elkarlanaren fruitu izan zen, baina aurrera egiteko herri osoaren laguntza behar izan du. **3. Kohesioa**: Euskaldun eta hain euskaldun ez direnen arteko kohesioa lortu du. Euskara erabiliz herriko gaiez herritarron komunikaziopremiak asetzeko balio duela erakutsi digu. Herritarron kohesioa eta hizkuntza-normalizazioa lortzeko tresna egokia da. Ausardia gehiago eskatuko nioke BARRENi. Informazio tresna bezala orain arte bere egitekoa bete duelakoan nago. Azalekoa eta arina izatea izan da lehentasuna, irakurterrazagoa izan dadin. Baina, orain, 15 urte eta gero, irakurterraza izaten jarraituz, ausartagoa izan behar duela uste dut, sakontasun handiagoz aztertuz gaiak eta Elgoibarko eguneroko gertaerak ikuspegi kritikoagotik jorratzen ahaleginduz. BARRENek berak ez luke egin behar agian, baina BARRENek bidera dezake bere orrietan ikuspegi anitza eta kontrajarria.

## Pili Freitas *euskara ikaslea*



Gustatzen zait BARREN, erraz irakurtzen da. Iritzi artikuluak dira ulertzeko zailenak, batez ere, hikaz idazten dutenak. Erdaldun jende askok irakurtzen du aldizkaria, euskara praktikatzeko tresna ona da. Kexen atala oso ondo dago eta gainera Udalak kasu egiten dio.

## Josu Artetxe *euskaldun berria*



Kirolen atala gustatzen zait, batez ere, baina orokorrean aldizkari guztia irakurtzen dut. Gustura hartzen dugu astekaria ostiralero. Oso ondo ulertzen da, batzutan izaten ditut zailtasunak ulertzeko, baina erabiltzen duen hizkuntza oso ulergarria da, oso gustora irakurtzen dut BARREN. Jende ezagunaren argazkiak ikustea oso polita da, herritarrak dira protagonistak.

# URTEAK EZ DIRA

Zelakoa zen Elgoibar BARREN jaio zen urtean? Aldaketarik gertatu ote da herrian? "Hamabost urte ez dira horrenbeste, barren!", pentsa lezake norbaitek. Azkar pasa zaizkigu azken hamabost urteak, bai, baina herriak berak sekulako itxuraldaketa izan du. Artxiboko erretratuek hori baieztatzen digute. Bi orriok aldaketaren erakusleiho txikia baino ez dira. Begiratu batean, herria hazi egin dela eta etxe mordoa eraiki dela esan liteke.

Hala ere, beste hainbat aldaketa izan dira. Esate baterako: tailerrak herritik irten egin dira eta inguruetan industriaguneak sortu; eguenetan ez dago merkadillorik herri barruan; zapatuetako *mobida* arratsaldetik gauera pasatu da; arropak lehen askoz nasaiagoak ziren; mundu osoko biztanleak dauzka orain Elgoibarrek... eta BARREN ume jaioberria izatetik, herrian sustraituta egotera pasa da.



*Pedro Muguruza kalea erabat aldatu da.*



*Ezenarro kalean ez dago tailerrik orain. Etxe berriek hartu dute haien lekua. Bidegurutzearen ordez, errotonda dago orain.*



*Lerunen industriagunea egin zuten eta Mintxeta bihurtu zaigu herriko kirolgune nagusia.*

# ALPERRIK PASATU!




Etxe berri batek 14 milioi! Soldatak ere horrela igo ote dira?



Eskualdeko autobusak aldatu dira. Bilbokoa kendu egin zuten.






Plaza Handia itxuraldatuta. Kabinarik ere ez dago. Nork pentsatuko zuen sakeleko telefonoak nagusitu egingo zirela?





Santa Anako aparkalekuan etxeak egiten ari direnez, Olasoko bidea itxita dago.

# [ZORIONAK]



Zorionak, **Olatz**, hilaren 25ean hamar urte egingo dituzulako. Familiakoen partez.



Zorionak, **artista**, dagoeneko bost urte egin dituzulako, zure aita, ama eta Goraneren partez.



Zorionak, **Oier**, martitzenean 3 urte egin zenituelako.



Zorionak, **Maria Beraza,** abenduaren 20an urteak egin zenituelako, etxeko guztien partez.



Zorionak, **Gaizka**, urteak egin dituzulako, familia guztiaren partez.



Zorionak, **Eider**, bihar 9 urte egingo dituzulako. Musu asko Goizederren eta familiaren partez.



Zorionak, Urko! 2 urte bete dituzulako, Irati, Haritz eta etxekoen partez. Muxu haundi bat.



Zorionak, Malen! Ongi pasa genuen zure 1. urtebetetzean. Muxu bat ikastolako laguntxoen partez!!!



Zorionak, **Roberto**, hilaren 19an 42 urte egin zenituelako. Eta zorionak, **Inma**, urtarrilaren 7an, 8 urte egingo dituzulako.

## [ 21 BARIXAKUA ]

20:00 **MUSIKA ESKOLAKO KIDEEN KONTZERTUA**
Musika Eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua eskainiko dute parrokian.

## [ 22 ZAPATUA ]

11:00 **HERRIKO GAZTEEN I. EGUNA**
Bertso trikipoteoa Madalatik. 12:30etatik aurrera, jolasak plazan. 15:00etan, bazkaria jatetetxean. 21:00etatik aurrera, kontzertuak gaztetxean.

11:00 **ARNALDO OTEGIREN ALDEKO EKIMENA**
Mahaiak jarriko dituzte Plazan Handian, 13:30ak arte, Otegiri postalak bidaltzeko.

16:30 **TXANTXAKUAREN JAIA**
Buruhandiak eta erraldoiak kaleetatik, marrazkiak, musika jolasak....

## [ 23 DOMEKA ]

12:30 **GABONETAKO KONTZERTUA**
Udal Musika Bandak gabon abestiak eta bestelako obrak (pasodoblea, mambo...) prestatu ditu. Herri Antzokian.

## [ 24 ASTELEHENA ]

10:45 **OLENTZERORENKALEJIRA**
Madalako Parketik irtengo da Olentzero eta herriko kaleak zeharkatuko ditu.

18:00 **MUSIKA BANDAREN KALEJIRA**
Musika Bandak kaleak musikaz jantziko ditu.

18:00 **PARROKIAKO ABESBATZA**
Kalejira eskainiko dute.

## [ 27 EGUENA]

**22:30 GABONETAKO BERTSO JAIALDIA**
Bertsolariak: Amets Arzallus, Xabi Paya, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi eta Aitor Sarriegi. Sarrerak aurrez jarriko dira salgai Herriko Antzokian.

## [ 28 BARIXAKUA]

**16:30 PIRRITX ETA PORROTX**
Pirritx eta Porrotx pailazoek "Eskerrik asko!" saioa aurkeztuko dute Kiroldegian. Bi saio eskainiko dituzte, bata 16:30ean eta bestea 18:30ean.

## [ 29 ZAPATUA ]

**10:00 GABON ZAHAR FERIA**
Baserriko produktuak jarriko dira salgai Plaza Handian eta Leku Eder parkean. Animaliak ere izango dira.
**19:00 TXAHAL DASTAKETA**
Eusko Labelen laguntzarekin eskuratutako txahala erre eta banatuko dute.

## [ 31 ASTELEHENA ]

**17:00 II. SAN SILVESTRE KROSA**
Urgazi Triatloi taldeak, II. San Silvestre herri lasterketa antolatu du. Plaza Handian izango da irteera.

## [ 2 EGUAZTENA ]

**17:30 MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK**
San Lazaro egoitzan

## [ 4 BARIXAKUA ]

**22:00 SAN ANTON PILOTA TXAPELKETAREN FINALERDIAK**
Ikastolako frontoian, Lagunak Taldeak eta Kirol patronatuak antolatuta.

## [ 5 ZAPATUA ]

**17:30 JAIOTZA BIZIDUNA**
Foruen plazan, 17:30etatik 19:00etara.
**18:00 ERREGEEN KABALGATA**
Elgoibarko kaleetan zehar.

## [ 6 DOMEKA ]

**10:15 UDAL MUSIKA BANDAREN EKINTZAK**
10:15etan kalejira eta San Lazaro egoitzan emanaldia. 12:30etan, kontzertua Herri Antzokian.
**12:00 KRISTAU IKASBIDEKOEN MEZA**
San Bartolome parrokian, Meltxor, Gaspar eta Baltasarrekin.

## [ 11 BARIXAKUA ]

**22:00 PILOTA**
Ikastolako frontoian, San Anton pilota txapelketaren finalak.
**22:30 "DESNUDAS" ANTZEZLANA**
Manero antzerki taldearen lana, Herriko Antzokian. Sarrerak aurrez salgai Kultur etxean.

## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** HERRIKO ANTZOKIAN

**«El caso Wells»**
22, zapatua: 19:00-22:15
23, domeka: 19:00-22:15
**«Stardust»**
23, domeka: 16:30
**"Un plan brillante"**
28, barixakua: 22:15
29, zapatua: 19:00-22:15
30, domeka: 19:00-22:15
**«Transylvania» (Z.K.)**
3, eguena: 21:30
**«La brújula dorada»**
4, barixakua: 22:15
5, zapatua: 19:00-22:15
6, domeka: 16:30-19:00-22:15
7, astelehena: 21:30
12, zapatua: 19:00-22:15

**EIBAR,** UNZAGA
**«La búsqueda II»**
21, barixakua: 19:30-22:15
22, zapatua: 17:00-19:30-22:15
23, domeka: 17:00-19:30-22:15
24, astelehena: 19:30-22:15
25, martitzena: 19:30-22:15
26, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

**OHARRA:**
Oharra: Gabonetako oporrak hartu ditugu zuen baimenarekin. Hurrengo alea urtarrilaren 11n jasoko duzue. Gabon zoriontsuak eta urte berri on!

# Langileak

Hamabost urtetan langile asko pasatu dira BARRENetik. Hasierako urteetan herritarrak izan ziren, batez ere, BARRENeko langileak. Ainhoa Lodoso izan zen lehenengo zuzendaria. Jasone Osoro kazetariarekin, Maite Rementeria maketatzailearekin eta Amaia Leiaristi publizistarekin osatzen zen lehenengo talde profesionala. Urteak aurrera joan ahala, aldaketak etengabe izan dira proiektuan eta baita lantaldean ere. Duela urtebete pasa, paperetik mundu digitalera egin genuen salto eta orain, paperean ez ezik, interneten ere irakurri daitezke Elgoibarri buruzko albisteak egunero. Gauzak horrela, lantaldea handitzea ezinbestekoa izan da. Gaur egun, Ainhoa Andonegi zuzendaria; Asier Orbea, Oier Narbaiza eta Andoni Iturbe kazetariak; Zaloa Arnaiz maketatzaileak eta Leire Rubio publizistak osatzen dute astekariko lantaldea. Hamabost urte pasatu dira, baina bidean segitzeko ilusioa eta gogoa hasierako berberak dira. Mila esker hemendik pasatu zareten guztioi.

**Zuzendariak:**
Ainhoa Lodoso
Eli Aizpuru
Jon Iñaki Lasa
Asier Orbea
Jasone Osoro
Enrique Bert
Ainhoa Andonegi
Jasone Osoro

**Kazetariak:**
Irati Agirrezaldegi
Jon Eugi
Esther Gurrutxaga
Oier Narbaiza
Andoni Iturbe

**Publizistak**
Amaia Leiaristi
Nekane Etxaniz
Myriam Aldazabal
Miren Moreno
Maitane Cid
A. Agirregomezkorta
Amaia Erkizia
Leire Rubio

**Maketatzaileak**
Maite Rementeria
Edu Sanz
Mikel Cornejo
Bea Ansola
Iker Diego
Jaione Unanue
Zaloa Arnaiz



PILAR IKASTETXEA
Elgoibar

GABON ZORIONTSUAK ETA
URTE BERRI ON




ARAMBURU
BITXIDENDA

Oparien erosketak egiterakoan, kontutan izan
20 €ko gastuagatik txartel bat emango dizugula,
errege bezperan egingo den zozketarako!!!

Aurten bitxi-dendan gastatzeko
500 €-ko 2 bale zozketatuko ditugu!!

AURTEN
ZU IZAN
ZAITEZKE!!!





San Frantzisko, 26 Tel./faxa: 943 74 25 35





Pintxoak • Bokadiloak • Gosariak • Postreak

PLATER KONBINATUetan aukera zabala

Pedro Muguruza, 5
Tel. 943 74 08 06/943 74 38 11

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Etxekit**
Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

**Ezenarro arotzeria**
Era guztietako arotz lanak
☎ 653 707 837

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

**Lodoso Leihoak**
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

**Soraluze**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

**Asima**
Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

## Indusketa lanak

**Lekunberri indusketak**
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.com
www.excavacioneslekunberri.com

## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

**Ibámar**
Ermuaran Bide, 11
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

**Javi**
Erretxindi, 1 behea
☎ 659 772 932

**Ongi**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 7 · MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

**Zaldua**
Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

**Zubizarreta instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44

## Pinturak

**Blok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

## Proiektu eta erreformak

**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Elektrizitatea

**Aramar**
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Joseba**
Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

**Peio**
Herriko Enparantza, 5 behea
MENDARO
☎ 943 03 35 35/660 791 723

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Igeltseritza

**Antonio Markez**
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

## Autoentzako tindatutako kristalak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabilioia
☎ 943 74 30 94


Etorri eta ezagutu
IKASTOLA
EGUBERRION
elgoibar ikastola
☎ 943 744441
elgoibar@ikastola.net
www.elgoibarikastola.net


Zorionak eta Urte Berri On
Felicidades y Próspero Año Nuevo
Joyeux Noël et Bonne Année
Frohe Weihnachten und ein Gutes Neues Jahr
Merry Christmas and Happy New Year
Buon Natale e Felice Anno Nuovo
新年快乐 ，步步高升!
2008
zorionak
ils
INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES
Azkue Auzoa 1-P.K. 37 IMH · Tel. 943 74 40 40 · Faxa: 943 74 16 54 · e-mail: ils@ils.es · www.ils.es


ainhoa
fisioterapia
Gabon zoriontsuak!
• Urtarriletik aurrera goiz eta arratsaldez.
• Zentrora heltzeko eragozpen fisikorik egongo balitz, etxez etxeko zerbitzua eskainiko da.
Tel.: 943 53 19 53
Mugikorra: 669 565 745
Jausoro, 6 behea
ELGOIBAR


LEIGAR ELEKTRAGAILUAK
MANU LEIZABE LOYOLA
TB · BIDEOA · HI-FI · DVD
Salmenta eta zerbitzu teknikoa
Errosario, 8 · Tel. 943 74 00 54


Euskadi
Elgoibar B.H. Institutua
GABON-JAI
ZORIONTSUAK
ETA 2008
URTE BERRI ON

# EIBARKO 3. GABONETAKO ARTISAU AZOKA

GALERIAS PARKEKO KARPAN, ABENDUAK 20tik URTARRILAK 5era
11:00-14:00/17:00-21:00

Abenduak / Diciembre **20**
12.00etan **INAUGURAZIOA**
MUSIKA ETA GORPUTZA
Maite eta Nerea

Abenduak / Diciembre **26**
17.00etatik 19.00etara **MANDALA TALLARRA**

Abenduak / Diciembre **28**
17.00etatik 19.00etara **TXAPA TALLARRA**

Abenduak / Diciembre **2**
17.00etatik 19.00etara **MOSAIKO TALLARRA**



**RENAULT**
**vehiculos comerciales**

**Zuk beste sinisten dugu zure negozioan eta lagundu egin nahi zaitugu.**
Azken belaunaldiko injekzio zuzeneko motor potenteagoak.




**Autonomo** edo **enpresaria** bazara gure **ibilgailu komertzial** guztietan:

- **%23ko deskontua*.**
- **Finantziazio baldintza bikainak*.**

EXPO ZARAGOZA 2008

* Autonomo eta enpresentzako eskaintza berezia 07-12-31 arte. Ezin zaio beste promozioei gehitu. Ikusten diren modeloak: Kangoo Express Confort, Trafic Furgoneta Laburra Normala eta altxatutako Master Furgoneta Ertaina. Renault ibilgailu komertzialen kategoria: kontsumo mistoa (l/100) 5,3tik 8,9ra. $CO_2$ isurketa (gr/km) 139tik 235era.

**RENAULT**
**AUTOBERRI**
ARRASATE - AZPEITIA - ELGOIBAR - IRUN - TOLOSA

# ELGOIBARKO UDALAK JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE HERRITAR GUZTIOI








Gabon Zaharretako Feria



ABENDUAK 29

"Gabonetarako prest eduki euskal jantzia"

Elgoibarko Udala eta Kultura Saila

1907-2007 Euskal Jaiak

Eusko Jaurlaritza